

# Prentsa oharra

## Nota de prensa



### **LGTBI+ KOLEKTIBOAREN USTEZ, EREMU PUBLIKOAN ETA AISIALDI EREMUAN DAGO DISKRIMINAZIO ARRISKURIK HANDIENA, ETA HEZKUNTZA SISTEMA INDARTU BEHAR DA**

Donostiako Udaleko Dibertsitate, Inklusio eta berdintasuneko zinegotzi ordezkari Cristina Lagék Donostiako LGTBI+ kolektiboaren errealitateari buruzko txostena aurkeztu du. Txosten horren helburua da hirian bizi diren kolektiboko kideen askotariko eremuetako diskriminazioak, eskaerak eta premiak identifikatzea.

Cristina Lagék nabarmendu duenez, «lan hori guztiz beharrezkoa da dibertsitatean oinarritutako bizikidetzaren sustatzeko, barne hartuta sexu- eta genero-dibertsitatea, diskriminaziorik eza eta aukera berdintasuna. Era berean, tresna baliagarria da kolektiboari, kolektiboko kideen familiei eta herritar guztiei zuzendutako udal politikak diseinatzeko».

Zaira García Dafontek egin du ikerketa eta, horretarako, inkesta elektronikoa bat egin die Donostian bizi diren kolektiboko kideei; zenbait elkarrizketa egin dizkie LGTBI+ arloko eragile estrategikoei, kolektiboaren barruko askotariko profiletako kideei eta udal arduradunei; eta, gainera, partaidetzazko kontraste saio bat egin du arlo horretako elkarteekin.

# Prentsa oharra

## Nota de prensa

### ➤ Inkesta elektronikoa

Inkestari emandako 301 erantzunetatik 254 baliozkotu dira. Horretan, % 49 gizon gisa identifikatzen dira, % 35 emakume gisa eta % 13 queer gisa. Sexu orientazioari dagokionez, % 46 gay gisa identifikatzen da, % 22 bisexual gisa, % 21 lesbiana gisa eta % 14 pertsona ez-bitar gisa.

Galdeketa alderdi hauei buruz galdetu zuen: laneko egoera, diru sarrerak, interseksionalitate egoera, ikasketak, jatorria, eta LGTBI+ pertsonen zer diskriminazio eta premia dituzten eremu publikoan, aisialdian, hezkuntzan, lanean, osasunean, segurtasunean, gizarte ongizatean, kulturen eta kirolean.

Datuak eta ateratako ondorioak aintzat hartuta, hau ondorioztatzen da:

- Agerian geratu da soldata arrakala dagoela gayen eta lesbianen artean eta egiten duten enplegu motan. Emakume lesbiana gazteek eta genero eta orientazio ez normatiboa duten pertsonen soldata baxuagoak eta enplegu prekarioagoak dituzte, bai eta langabezia tasa handiagoa ere.
- Gehienek diote ez dituztela beste pertsona batzuk ekonomikoki mantentzen, eta hori familia nuklearraren kontzeptutik kanpo bizitzearekin dago lotuta.
- Diskriminazioaren ardatz interseksionalei dagokienez, profilik ohikoena egoera erregularrean dauden atzeritar gayak eta desgaitasun egoeran dauden pertsonak dira, gainerakoek baino mespretxuzko diskriminazio gehiago jaso dituztelako (hitzezkoak eta fisikoak).

### ➤ Diskriminazioak

Zoritxarrez, gaur egun, oraindik ere, diskriminazio egoerak aurki ditzakegu. «Datuak adierazgarriak dira: inkestatuen % 76,4k adierazi du diskriminazio egoeraren bat jasan duela, eta % 23,6k, berriz, ez duela inoiz horrelako egoerarik bizi izan. Trans pertsonen eta identitate ez-normatibokoek pairatzen dituzte gehien. Gainera, mespretxuak, irainak eta eraso fisikoak eremu publikoetan eta aisialdiko tokietan gertatzen dira», Lagek nabarmendu duenez.

Eremu instituzionaletan (osasuna, herritarren segurtasuna, administrazioa eta justizia, eta gizarte ongizatea) diskriminazio pasiboak (bazterkeria, kolektibo batzuk ikusezin bihurtzen dituzten inprimakiak, laguntza eta zerbitzu espezializatuen falta, etab.) aktiboak baino zertxobait ugariagoak dira.

- Kirolaren eremuan identifikatzen dira diskriminazio gutxien. Horrek ez du esan nahi LGTBI+ kolektiboko kideentzako eremu erosoak direnik, besteak beste, modu bitarrean banatutako tokiak direlako.
- Gazteenek pairatzen dituzte gehien eraso fisikoak eta hitzezkoak. Adin horietan, aukera askekoak ez diren tokietan egoten dira eta tokiotan pertsona ez-toleranteak egon daitezke; gainera, kontrol emozionala

# Prentsa oharra

## Nota de prensa

txikiagoa izaten da eta disidentzia estetikoa eta ikusgarritasuna, berriz, handiagoak, eta horrek indarkeria handiagoa eragin dezake.

- Sexu- eta genero-dibertsitatearen arloan aktibistak diren LGTBI+ kolektiboko pertsonak besteek baino diskriminazio gehiago identifikatu eta/edo bizitzen dituzte, baina ez dago alde esanguratsurik gainerakoekiko. Ondorioztatzen da LGTBI+ kolektiboko pertsonen aurkako indarkeriaren kontrako sentsibilizazioak eta garapen kritikoak eragin handia duela.

### ➤ **Beharrak**

- Hezkuntza eremuan identifikatzen dira premiarik handienak, gizarte aldaketarako gako nagusietako bat baita.
- Aisialdiko eremuetan zehaztu diren premia ugariak hau dute oinarrian: dibertsitatea errespetatuko duten eremu seguruz gozatzeko, aisialdia dibertsitatean elkarrekin bizitzeko tresna gisa erabiltzeko, berdinen arteko zainketa sareak ehuntzeko eta kidekoak ezagutzeko nahia. Lesbianak dira arlo horretan premia gehien zehaztu dituztenak.
- Bestalde, 40.000 eurotik gorako diru sarrerak dituzten pertsonak premia gehiago identifikatzen dituzte eremu publikoetan, aisialdian, segurtasunean eta hezkuntzan, oinarritzko premiak aseta dituztelako, seguruenik.
- Era berean, GTB+ diren gizonak LTBI+ emakumeek baino diskriminazio gehiago adierazi dituzte. Hala ere, emakumeek gizonak baino premia gehiago aipatu dituzte.

### ➤ **Sigla bakoitzaren errealitatea**

- Lesbianek gayek baino diru sarrera txikiagoak dituzte, baina gainerako siglek baino handiagoak.
- Gayen kolektiboa beren kargura pertsonarik ez duten eta enplegu egonkorrak dituzten gizonak osatzen dute, emaitzen arabera.
- Trans\* kolektiboaren arabera, lan eremuan dute premia gehien. Trans\*, queer eta ez-bitarren mendekotasun ekonomikoaren indize handiak enplegua lortzeko zailtasunekin lotuta daude.
- Bisexualek, beste sigla batzuek ez bezala, diskriminazio tasarik altuenak aisialdian dituztela adierazi dute, baina uste dute eremu publikoan, hezkuntzan, administrazioan eta justizian eta gizarte ongizatean daudela premia gehien.

# Prensa oharra

## Nota de prensa

- Pertsona intersexualei dagokienez, ezin da ondoriorik atera; izan ere, diskriminazioak bizi izan dituztela adierazi eta premiaak identifikatu arren, ez dituzte erantzunak garatu.

### ➤ **Eskaera zehatzak**

- Kolektiboarekiko errespetua, onarpena eta tolerantzia lantzea.
- Gaiaren inguruko hezkuntza, sentsibilizazioa eta kontzientziak indartu edo sakontzea.
- Gaiaren prestakuntza, ikerketa eta espezializazioa sustatzea.
- LGTBI+ arloko politika publikoak indartzea eta zeharkako ikuspegia txertatzea eremu guztietan.
- Kolektiboarentzako eremu seguruak sortzea.
- Erasoak eragiten dituztenen zigorgabetasuna murrizteko neurriak hartzea. Erasoen aurrean, segurtasuna indartzea eta/edo kolektiboarekin esku hartuko duten profesionalak prestatzea.
- Kolektiboko kideen ikusgarritasuna sustatzea eta erreferenteak bultzatzea.
- LGTBI+ kolektiboko pertsonentzako baliabideak eta zerbitzuak garatzea.
- LGTBI+ kolektiboko pertsonen errealitateak normalizatzea.

### ➤ **Gomendioak**

Txostena ikusita, gomendio hauek iradokitzen ditugu, besteak beste:

- Udal sail guztietara hedatuko diren zeharkako politika sendo eta artikulatuz osatutako esparru orokor bat diseinatzea, lidergo argi batekin eta sailen arteko koordinazio eraginkorrarekin.
- Langile publikoak sexu- eta genero-dibertsitatearen arloan informatzea, prestatzea eta kontzientziatzea, arlo bakoitzaren berezitasunetara egokituta.
- Helburu errealistak eta neurgarriak ezarri eta ebaluatzea.
- Sexu- eta genero-dibertsitatearekin lotutako indarkeriaren edo diskriminazioaren kausak ardatz dituzten kanpainak egitea, kolektibora bideratu gabe.

# Prensa oharra

## Nota de prensa



- Diskriminazioaren aurkako erreferentziazko espazio eta/edo zerbitzuak sortzea, ikuspegi intersektionalarekin.
- Kolektiboko eragile antolatuen eta Udaleko arduradunen arteko lankidetzaren indartzea.